

*Zer da* **BEGANISMOA?**



Jatorrizko textua:

**Promoviendo el veganismo**

pveganismo@gmail.com

Itzulpena:

**Askekintza eta Nor**

askekintza.org

Argazkia:

**Juan Tatorri**

Informazioa gehiago:

acabemosconelespecismo.com

Irabazi guztiak antiespezispezismoaren inguruko ideiak zabaltzeko erabiliko dira.

Liburuxka honen difusio, edizio eta erreproduzio osoa gomendatzen da, debate eta erabilera ez komertzialari zuzenduak.

*Esku artean duzun liburuxka honek begano izateko argudioak ematen dizkizu. Begano izatea animaliak errespetatzeko era bakarra da, eta ez da norberaren aukera bat. Hala ere, begano izatea ez da nahikoa haiek pairatzen dituzten bidegabekeriak bukatzeko. Beganismorako pausoa emanda, beste espezieetako animaliei eragiten diegun sufrimendua gutxitzen dugu, baina ez dugu ezer egiten haien zapalkuntza ezabatzeko. Horregatik, ezinbestekoa da animalien aldeko jarrera hartzea eta espezismoaren aurkako aktibismoa egitea.*

*Antolatu eta batu borroka antiespezistara!*

**Askekintza**



# *Aurkibidea*

“Beganismo” terminoa

Beganismoa berriz definituz

Animalien eskubideak

Berdintasunaren printzipio etikoa

Espezismoa

Beganoak gehiago arduratzen al dira animalien sufrimendua ezabatzeaz gizakiena ezabatzeaz baino?

Animaliak maite dituztenak

Bienestarismoa vs abolizionismoa

Beganoak erradikalak/muturrekoak dira?

Landareek sufritzen dute?

Ekologismoarekin ezberdintasuna

Lehoiak gazela jaten badu, zergatik ez dugu guk txerria jango?

Arrautzen kontsumoa

Esnekien kontsumoa

Begano izateko zailtasunak

Presioaren arazoa



## «*Beganismo*» hitza

Donald Watson eta Elsie Shrigley britaniarrek sortu zuten *begano* hitza. Biek ala biek saihestu egiten zuten animaliak esplotatzea edo haiei min ematea, bizi-estilo gisa. Horrekin, uko egiten zioten animaliak jateari, baina, era berean, ohartzen ziren zer-nolako sufrimendua zekarren esnea eta arrautzak kontsumitzeak. Halaber, ez zuten animaliarik erabiltzen janzteko, eta ez zituzten erabiltzen garraiobide gisa, dibertitzeko...

Watson eta Shrigley ez ziren izan lehen *beganoak*, baina haiei iruditu zitzaien beharrezkoa hitz bat edukitzea nolabait identifikatzeko hainbat begetarianoren kezkekin (hots, begetariano zirenekin arrazoi etikoak zirela medio) eta, aldi berean, bereizteko horretarako arrazoia osasuna zuten haiengandik edo arrautzak, esnea eta animaliangandik eratorritako beste produktuak kontsumitzen zituztenengandik. *Vegan* hitza sortu zuten ez beren burua nabarmentzeko, baizik eta jabetzen zirelako nahasgarria zela hitz bakar bat erabiltzea interes eta bizimolde desberdinak dituzten pertsoneri erreferentzia egiteko.

Halatan, 1944an, Donald Watsonek eta Elsie Shrigleyk *beganismo* hitza sortu zuten. Watsonek honela definitu zuen: “*Beganismoa* bizi filosofia bat da, non uko egiten zaion animalien kontrako esplotazio- eta krudelkeria-forma orori, eta bizitza gurtzen den. Praktikoki, dieta begetariano zorrotz bati eustean datza, eta alternatibak erabiltzera bultzatu nahi du guztiz edo partzialki animaliangandik eratorritako produkturik ez kontsumitzeko”.

Watsonek berak argi uzten du *beganismoaren* motibazioa ez dela ekologia edo osasuna, baizik eta animaliak subjektu moral gisa aitortzea. Azaldu zuenez, zenbait gizartek ez dituzte kontuan izan gizatalde jakin batzuen interesak, eta esklabo egin dituzte; bada, mendebaldeko gizartean antzeko injustizia bat egi-ten da animalien aurka.

“Egungo gure zibilizazioa animalien esplotazioan oinarritua dago, garai bateko gizarteak esklaboen esplotazioan zedarritu ziren bezala; bada, uste dugu etorkizunean, gizakien patu espiritualaren ondorioz, izugarrikeria hutsa irudituko zaigula garai batean beste animalia batzuen gorpuekin egindako produktuekin elikatu izana”.

**Donald Watson, The Vegan News.**

**1 zbk., 1944.**

## *Beganismoa berriz definituz*

Watsonek azaldu zuen arren beganismoa animalien produktuak ez kontsumitzean datzala, begano askok ulertzen dute Watsonen eta gainerako beganoen benetako kezka zera dela, animaliei sufrimendurik ez eragitea. Alegia, Watson eta Shrigley ohartzen ziren animaliei kalte egiten zaiela arrautzak edo esnea kontsumitzean, nahiz eta ez zuzenean hil; horregatik ez zuten egiten.

Hala ere, badira animaliangandik eratorri gabeko produktu batzuk animalien sufrimendua edo esplotazioa dakartenak. Adibide bat litzateke mando bat erabiltzea soroa lantzeko.

Mando hori landako makina bat balitz bezala erabiltzen da, kontuan izanik ez haren interesak, baizik eta haren lan-indarra eta dakartzan etekinak. Alegia, beganismoaren oinarria ez da animaliangandik eratorritako produktuak ez kontsumitzea, baizik eta ez sufrimendurik eragitea haiei, eta sentitzeko gai diren eta esplotatuak ez izateko interesa duten izaki gisa tratatzea; ez tratatzea gizakien menpeko objektu gisa.

Kontuan hartuz gero beganismoa animalianganako errespetuzko jarrera bat dela, ulertzen dugu ez dela soilik elikadura kontua, baizik eta eta animalia bati kalte egin diezaiokeen edozein jarreraren kontua. Hortaz, ezin da esan pertsona bat beganoa denik baldin eta, animaliak esplotatzetik eratorritako produkturik jan ez arren, larruzko arropak erosten baditu, animaliekin esperimentatzen badu edo txakurra gaizki tratatzen edo ehizan entretenitzen bada.

Azkenik, zehaztu egin behar da: esaten dugunean beganoek uko egiten diotela animaliei sufrimendua eragiteari, ulertu behar da horretan haien interesak aintzat hartzen dituztela beti. Esate baterako, animalia zauritu batek albaitarien laguntza behar badu, litekeena da ebakuntzan edo zauria josterakoan animalia estresatzea edo sufritzea; alabaina, kasu horretan, animalia onerako kalte txiki bat litzateke. Hau da, ez zaio sufrimendua eragiten gizakien etekinerako soilik, baizik eta beraren intereserako. Argi dago beganismoa ez dagoela sufrimendu horren aurka.

## *Animalien eskubideak*

Animalien eskubideez hitz egiten dugunean, ez gara ari eskubide terminoaren adiera juridiko edo legegileaz, baizik eta alde moralaz. Alde horretatik, animalien eskubideak errespetatu dituzten defendatzen dutenak konturatzen dira horretarako ezinbestekoa dela gizarteak haiei buruzko ikuspegia aldatzea eta ulertzea animaliek errespetua merezi dutela. Kontua ez da legeak aldatzea; jarraian azalduko dugu zergatik dituzten eskubideak animaliek.



Inori eskubiderik aitortzeko, beharrezkoa da hark interesa izatea eskubide horretan. Esate baterako, ez dauka zentzurik gizonezko bati aitortzea eskubidea duela behar bezalako arreta medikoarekin erditzeko. Animaliekin berdin-berdin gertatzen da; animaliei haien interesei dagozkien eskubide batzuk aitortu behar zaizkie. Horrek esan nahi du animalien eskubideen aldekoek ez dutela eskatzen animaliei bozkatzeko eskubidea ematea. Animaliek ez dute bozkatzeko interesik, eta, hortaz, animalien eskubideen aldeko inork ez luke eskatuko eskubide hori aitortzerik. Izan ere, animaliei eskubideak aitortzearen kontrakoek halako amarruak erabiltzen dituzte sarri: esaten dute animalien eskubideen helburua animaliak hautetsontzietara eramatea dela, adibidez, eta baita beste hainbat disparte ere.

Animalia gehienek nerbio-sistema bat dute, eta, hari esker, sentsazioak dituzte. Sentsazio horien artean, batzuk atsegintzat har genitzake (plazera, esaterako), eta beste batzuk, desatsegintzat (mina, estresa, izua...). Logikoa den bezala, animaliek sentsazio atseginak izateko eta desatseginak saihesteko eskubidea dute. Bizitzaz gozatu nahi dute, eta, jakina, ez dute sufritu nahi, ezta hil ditzaten ere. Interes horiekin bat, zenbait eskubide aitortu behar zaizkie. Gary Francionek animalien hiru oinarritzko eskubide azpimarratzen ditu: aske izateko eskubidea, bizitzeko eskubidea eta beste inork sufrimendurik ez eragiteko eskubidea. Francionek bakar batean biltzen ditu hiru eskubide horiek: jabetza gisa (gizakien mesederako baliabide hutsak balira bezala) trata ditzaten saihesteko eskubidea. Beganoen ikuspegitik, oro har onartzen da animaliek sentimenduak dituztela; alegia, ez daudela mundu honetan gizakiak zerbitzatzeko, eta haien bizitzaz gozatu nahi dutela.

## ***Berdintasunaren printzipio etikoa***

Berdintasunaren printzipio etikoaren arabera, bi norbanakok interes bera badute, interes hori berdin baloratuko zaie bi norbanakoei, ezaugarri garrantzizgabe oro gorabehera: adibidez, gizonek eta emakumeek interes bera badute maite dituztela sentitzeko, interes horri balio bera eman behar zaio sexua gorabehera. Printzipio hori arraza ezberdineko norbanakoei ere aplikatzen zaie; esate baterako, norbanako bat afrikarra edo asiarra izan, hil ez dezaten interesa berbera da beti. Beraz, berdin da bidegabea bata zein bestea hiltzea.

Animalien eskubideetan sinesten dutenek gainerako espezieetako norbanakoei aplikatzen diete printzipio hori. Adibidez, gizakiz besteko animalia batek eta gizaki batek interes bera dute tortura ez dezaten; beraz, berdin da bidegabea bata ala bestea torturatzea.

Beraz, arraza, sexua, espeziea, adimena eta orientazio sexuala garrantzirik gabeko ezaugarriak dira, eta, berdintasunaren printzipio etikoaren arabera, hori kontuan izan behar da haien interesak baloratzeko garaian.

## ***Espezismoa***

Espezismoa dakar berdintasunaren printzipio hori urratzeak, hau da, diskriminazio moral arbitrario bat egiteak; espeziearen arabera norbanako baten interesei garrantzi handiagoa ematean datza. Espezismo hitza arrazismoaren (norbanako bat arrazagatik diskriminatzea) eta sexismoaren (norbanako bat sexuagatik diskriminatzea) baliokidea da.

Espezismoaren formarik arruntena antropozentrismoa da, hau da, pentsatzea gizakiak eta beren interesak gizakiz besteko animalienak baino garrantzitsuagoak direla. Baina espezismo mota gehiago daude: adibidez, txakur baten interesak oilo batenak baino garrantzitsuagozat jotzea.

Misanthropia da balio txikiagoa ematea gizakiei eta haien interesei gainerako animaliei baino. Diskriminazio espezistaren aurka daudenak antropozentrismoaren, misantropiaren eta beste edozein espezismo-formaren aurka daude. Gizakiz besteko animalien eskubideen aurkakoek erabiltzen duten beste argudio bat zera da: beganismoan, gizakiz besteko animaliak gizakiak baino gehiago baloratzen direla. Baina argudio horrek ez du zerikusirik errealitatearekin.

## ***Beganoak gehiago arduratzen al dira animalien sufrimendua ezabatzeaz gizakiena ezabatzeaz baino?***

Oso ohikoa da beganoei leporatzea gehiago arduratzen direla gizakiz besteko animalien interesez gizakien interesez baino. Baina kontrakoa gertatzen da. Hori dioteneke uste dute gizakiek eta gizakien interesek atentzio berezia behar dutela, baina beganoak konturatzen dira espezieak ez duela garrantzirik norbanako baten interesak baloratzeko orduan. Beganoek berdintasunaren printzipio etikoa gizakien eta gizakiz besteko animalien artean aplikatzeak talka bat eragiten die gure gizartean nagusi diren balio antropozentristetan hezi direnei, eta ohikoa da horregatik minduta sentitzea beganoekin.

Berdintasunaren printzipio etikoa aplikatzean, bi norbanakoren artean zeini lagundu erabakitzekeo garaian bakoitzaren beharrak hartuko dira kontuan, eta ez zein espezieetakoak diren, antirrazista batek arraza kontuan hartuko ez lukeen bezala. Adibidez, begano batek hanka hautsia duen txakur bat eta azkazal bat hautsia duen ume bat aurkituz gero mendian oinez dabilela, txakurrari lagunduko dio umeari baino lehen, lehenaren sufrimendua handiagoa baita bigarre-

narena baino. Horrek ez du esan nahi txakurrari umeari baino garrantzi gehiago ematen dionik; kontua da ohartzen dela txakurra larriago dagoela eta presazko laguntza behar duela. Alderantziz balitz, eta umeak balu hanka hautsia, hari lagunduko lioke.

Nabarmendu behar da gizakiz besteko animalien eskubideen defentsan dabiltzan ekintzaille gehienek parte hartzen dutela justizia sozialaren aldeko beste mugimenduetan ere (arrazismoaren, sexismoaren, homofobiaren, inperialismoaren abolizioan, adibidez). Horrek erakusten du ez dela egia beganoek lehentasuna ematen dietenik gizakiz besteko animaliei gizakien aldean.

## ***Animaliak maitatzea***

Begano izateak ez du esan nahi animaliak maitatzea, baizik eta errespetatzea, oinarritzko eskubide batzuk aitortzea eta berdintasunaren printzipio etikoa aplikatzea.

Arrazismoaren aurka daudenek ez diete sinpatia berezirik beste arrazetako gizakiei; era beran, espezismoaren aurka borrokatzen direnek ez dute zertan sinpatia berezirik sentitu beste animaliekiko.

## ***Ongizatezaleak eta abolizionistak***

Gizartean, gero eta ohikoagoak dira animalien kontrako tratu txarren kritikak. Etengabe aldatzen dituzte hiltegiatan animaliak hiltzeko erak, oilo erruleak gati-batzen dituzten kaiolen tamainak eta abar. Animalien ongizateari buruzko araudia erreformatzea izaten da ongizatezaleen helburua, zeina ez baita animaliak esplotatzeari uztea, baizik eta beste era batean egitea.

Beganismoak, bestalde, gizakiz besteko animalien esplotazioa deuseztatzea du xede, abolitzea, eta berdin dio esplotazio hori zertan datzan edo animaliak nola hiltzen diren. Hortaz, begano batek ez luke haragia jango, ezta ziurtatuko baliote ere txerri horrek zelaitik paseatzeko aukera izan zuela eta hiltegiaren sufrimendua ahalik eta gehien murrizten saiatu zirela.

Ez luke egingo, bizitzeko eskubidea aitortzen baitio txerri horri, bai eta bizitzaz gozatzeko eta gizakion jabetza gisa erabilia ez izateko eskubidea ere. Animalia bat hiltzeak eskubide hori zapaltzea dakar, eta metodoak ez du axola.

## ***Beganoak erradikalak eta / edo muturrekoak dira?***

Debate batean, ez da harritzekoa argudio bati erantzuteko gai ez denak beste pertsona iraintzea edo muturrekotzat edo erradikaltzat tratatzea.

Jarrera hori duenak erakusten du ez duela asmorik debatean ezer berririk ikaste-ko edo bere jakintza zabaltzeko, eta nagusitasunez ezarri nahi duela bere jarre-  
ra. Ohartzen denean arrazoi etiko eta logikoak daudela bizimolde begano bati jarraitzeko, beste aldearen argudioak gutxiesten ditu, bere ideiak zalantzan jarri ordez; ez du horretarako arrazoirik ematen, eta soilik dio beste ideia horiek “muturrekoak” edo “erradikalak” direla.

Komenigarria da jendea ohartzea beganoak ez zirela hasieratik begano izan, eta elkarrizketarako mentalitate ireki bati eta norbere jarrerak eta ideiak zalantzan jartzeko gaitasunari esker aldatu zituztela ohiturak. Beraz, ez du zentzurik argudioak erasotzat hartzeak, beganoak ere berdin egon baitira lehenago ere. Begano izatea ez datza begano ez dena erasotzean, ezta gailentasun sentimendurik izatean ere. Kontrakoa da, izatez; asko beganoak dira pentsatzen dutelako ez direla inor baino gehiago.

Bestalde, marra bat marraztuko bagenu, mutur batean jarrita gizakiz besteko animaliekin bereziki krudelak direnak eta bestean haiei kalterik ez egiten saiatzen direnak, argi dago beganoak bigarren muturrean jarriko genituzkeela. Bi muturren artean legoke gainerako jendea, gizakiz besteko animaliei eragiten dien sufrimenduaren arabera. “Muturreko” kontzeptua alde horretatik ikusiko bagenu, beganoak muturrekoak lirateke, gizakiz besteko animaliak errespetatzen eta haien sufrimendua gutxitzen saiatzen baitira. Baina ez dago horregatik iraintzeko arrazoirik.

*Erradikal* terminoari dagokionez, hori ere arma gisa erabiltzen dute batzuek, gizakiz besteko animaliekin errespetuz jokatzeko dutenen aurkako argudiorik ez dutenek, alegia. Etimologikoki, hitz hori latineko *radix* (sustrai) hitzetik dator. Horiek horrela, pertsona erradikaltzat jotzen badugu arazo bat konpontzeko haren sustraira doana (eta ez kanpoko aldera), esan liteke beganoak erradikalak direla. Badakite gizakien eta gizakiz besteko animalien arteko harremanaren arazoa zera dela: gizakiek ez dituztela kontuan hartzen gizakiz besteko animalien interesak, eta ez dizkietela dagozkien eskubideak aitortzen. Horregatik, uko egiten diote gizakiz besteko animaliak esplotatu eta hiltzeko modua aldatzeari; arazoa errotik konpondu nahi dute, eta, horretarako, gizarteari erakutsi nahi diote gizakiz besteko animaliek errespetua merezi dutela, eta ez dutela merezi gizakien onurarako ondasun izatea

## ***Landareek sufritzen al dute?***

Landareek ez dute nerbio-sistematik edo sententzioak izateko gaitasuna ematen dien aparataturik. Inolako sententziorik gabe, ezin dute inolako interesik izan, eta ezin zaie eskubiderik aitortu.

Ohikoa da pentsatzea izaki bizidun guztiok sententzioak izan ditzakegula. Landare batzuek badute ahalmena zenbait mugimendu egiteko; adibidez, ekiloreek

edo landare haragijale batzuek. Landare batzuk gehiago hazten dira gune argietan, eta beste batzuen sistema erretikularra gehiago hazten da ura dagoen lekuetan. Fenomeno biologiko horiek nastia eta tropismoen bidez azal daitezke, baina ez landareen sentitzeko gaitasunaren bidez. Izan ere, ez dute estimuluak jasotzeko organo sentsorialik, lekualdatzeko lokomozio-organorik ezta erantzunak sortzeko gai den nerbio sistemarik ere.

Badaude hainbat arrazoi frogatzeko landareek ez dutela sentsaziorik, eta ondorioz ez dutela interesik ez eskubiderik. Nerbio-sistema zentralik ez izatea arrazoi bat baino ez da. Beste bat da landarearen moldaeraren kontrakoa izango litzatekeela. Izaki bizidunek bizi diren ingurunera moldatu ahal izateko organo eta mekanismoak garatu dituzte belaunaldiz belaunaldi. Organo batek hori erraztuko ez balu, desagertu egingo litzateke progresiboki. Landare bati sufritzeko modua emango liokeen mekanismoren bat izateak ez lioke mesede egingo. Izan ere, landareek, animalioek ez bezala, ezin dute arriskutik ihes egin edo sufrimendu-iturria saihestu.

Batzuen batzuek, animalien eskubideak ukatzen tematurik, esan izan dute ez soilik landareek sentitzeko gaitasuna dutela, baizik eta baita animaliek ez dutela sentitzen ere. Jakina, hori erabat absurdoa da. Biologiari buruz oinarritzko ezagutzarik duen edozeinek azal dezake animaliek sentitzeko gaitasuna dutela, organo errezeptore eta transmisore batzuei esker. Horrez gain, landareen anatomia nahikoa ezaguna da, eta erabat ziur baieztatu daitezke landareek ez dutela halako organo errezeptorerik. Zientifikoki frogaturik dago aspalditik landareek ez dutela sentitzen.

Haien nerbio-sistemaz eta moldakortasunaz gain, animaliek sentitzeko gaitasuna dutelako frogarri bat da hauxe: hots, mina adierazten dutela. Txakur bat zapaltzerakoan, kexatu egiten da, gizaki bat bezala. Txakur batekin bizi izan den edonork antzeman dezake noiz adierazten duen poza. Txakurren eta beste edozein animalia-aren sentsazio horiek ukatzea absurdoa litzateke, eta logikarik gabea.

Beganoek animaliarik ez jatea baina landareak jatea ez da aukera arbitrario bat, arrazoi zientifiko eta moralen ondorio baizik.

Landareek sufritzen dutela esatea beganismoa barregarri uzteko saiakera bat izaten da sarri, kontraesanen bat aurkitzeko saiakera etsi bat. Baliteke, halaber, biologiaren inguruko ezagutza falta izatea horren motiboa; adibidez, ez jakitea zer diren nastiak eta tropismoak.

## ***Ekologismoaren desberdina***

Ekologismoa ekosistemak eta haien bioaniztasuna babestea helburu duen mugimendu bat da (kontserbazionismoa). Norbanako oro aintzat hartzen da bizi den ekosisteman duen rolaren arabera. Balio hori ekosistema zehatz batean dauden espezie bakoitzeko norbanako kopuruaren arabera da. Ehun basahuntz eta hiru otso badaude, ekologistek garrantzi handiagoa emango diete otsoen interesari basahuntzenera baino. Ez dute berdintasunaren printzipioa aplikatzen, eta bereizketak egiten dituzte espeziearen arabera.

Atentzioa ematen du norbanakoen interesak baloratzeko era hori (espezie bakoitzeko kideen kopuruaren arabera) ez zaigula gizakioi aplikatzen. Hala balitz, ekologista batek gehiago baloratuko luke putre beltz bat gizaki bat baino, adibidez.

Ekologistek gehiago baloratzen dute desagertzeko zorian dagoen katamotz baten bizitza etxeko katu batena baino; aldiz, animalien eskubideak defendatzen dituztenek azpimarratzen dute bi norbanakoren interesak berdintzat hartu behar direla. Berdin-berdin, arrazakeriaren aurka dagoen norbaitek ez die balio handiagoa ematen arraza edo tribu txiki bateko norbanakoen interesari.

## ***Lehoiak gazela jaten badu, zergatik ez dugu guk txerria jango?***

Lehoiek ez bezala, gizaki gehienok arrazoiketa moralerako gaitasuna dugu adin jakin batetik aurrera. Horrek ahalmena ematen digu bereizteko zer dagoen ondo eta zer gaizki. Lehoi bati ezin diogu eskatu bere jarrerak oinarri moralik izan dezan; bada, berdin, guk ezin dugu moraletik kanpoko jarrerarik izan argudiatuz lehoi bat ere halaxe ari dela.

Garrantzitsua da ulertzea oso arriskutsua dela gure ekintzak justifikatzea esanez beste animaliek ere egiten dutela; izan ere, arrazoiketa horrek ondorio arriskutsuak izan litzake. Gizakiz besteko animaliek, arrazoiketa moralik ez dutenez, gizakiok gaitzesgarritzat jotzen ditugun jokabideak izaten dituzte. Lehoi arrak, adibidez, eme batekin kopulatu nahi duenean, haren umeak hiltzen ditu bereak ez direla baldin badaki.

Argitu beharra dago printzipio moral batzuen arabera arrazoitzeko gaitasuna izateak ez duela inor jartzen gaitasun hori ez dutenen gainetik. Pertsona heldu batek ez du haur batek baino kontsiderazio moral txikiagorik merezi.

Eskubideak ez dira gaitasunen arabera, interesen arabera baizik. Printzipio hori beste espezieetako animaliei ere ezarri behar zaie. Ondo eta gaizki dagoenaren artean desberdintzeko gaitasunak ezinbestean dakar ondo

dagoenaren arabera jokatzeko betebeharra. *Urrezko Araua* aplikatzea dakar: guk besteak tratatzea haiek gu tratatzea gustatuko litzaiguen eran. Arau hori gizakiz besteko animaliei ere ezar litzaigukeen.

Gizakiak animalia orojaleak gara. Horrek ez du esan nahi denetik jan behar dugunik, askotan esan ohi den bezala, baizik eta gure digestio-sistemak elikagai ugaritatik xurga ditzakeela mantenugaiak. Horrek aukera ematen digu zer jan aukeratzeko, alderdi morala kontuan harturik.

Beganismoak berdintasunaren printzipio etikoa aplikatzen du: txerri baten bizitzeko interesak balio handiagoa du urdaiazpikoa jateko gure interesak baino, txerriaren interesa hil ala biziko interesa baita, eta bigarrena, berriz, apetatzat har genezake. Posible da animalia bati sufrimendurik ez eragitea, kasu horretan txerri bati, %100 begetala den plater bat aukeratuta. Urdaiazpiko-eskaria gutxituta, txerrien hazkuntza (eta, ondorioz, sufrimendua) gutxitu egingo litzateke era zuzenki proportzional batean.

## *Arrautzen kontsumoa*

Zalantza hau izaten da ohikoenetako bat norbaitek beganismoaz entzuten duenean: ea zergatik ez den arrautzarik ez esnerik kontsumitzen, era horretan animaliarik “hiltzen ez bada.” Horren erantzuna ez da “beganoeak ez dute arrautzarik ez esnerik jaten ez dutelako kontsumitzen animaliangandik eratorritako produkturik”, beganismo hitza berriz definitzean ikusi dugun bezala, baizik eta animaliangandik eratorritako produktu horiek jatean animaliei sufrimendua eragiten zaielako, eta hori saihestera jotzen dugulako. Norbait zapaltzeko edo hari sufrimendua eragiteko ez da beharrezkoa hiltzea, geroago ikusiko dugun bezala.

Arrautzen industrian, oiloak gatibu egoten dira industria-nabeetan, eta haietako bakoitzean milaka kaiola daude baterian; kaiola txiki horietan bizi dira oiloak, kide presoekin pilaturik. Estres horren ondorioz, mokoka egiten diote elkarri, eta, horrez gain, duten espazio murriztagatik, urradurak egiten dituzte kaiolaren burdinekin, eta infekzioak sortzen zaizkie, parasitoak...

Oilo gutxi batzuk ganadutegi estentsiboko haztegieta bizi dira. Oiloak animalia hierarkikoak eta sozialak dira, eta, hierarkia hori finkatzeko, agresiboki lehiatzen dira. Hierarkia hori finkatuta, elkar mokokatzeari uzten diote. Industriagune estentsibo horietan, oilo gehiegi daude esparru berean, eta, ondorioz, ez dira gai izaten kide guztiak gogoratzeko; elkarren arteko erasoak etengabeak izaten dira. Industriaren irtenbidea mokoa moztea da, bizitza osorako elbarritzea.

Halere, mokokatzearen ondorioz sortutako zauriak desagertu arren, pairatzen duten estresa berbera da. Baina garrantzitsuena da haztegieta, edonolakoak

izanda ere, oiloak jabetza gisa tratatzen dituztela; haien interesei ez ikusia egiten zaie, eta ez da ezartzen berdintasunaren printzipio etikoa.

Kontuan izan behar da gezurra dela esatea arrautzak jatean ez dela inor hiltzen. Gutxi gorabehera bi urtean behin, oiloek arrautzen ekoizpena murrizten dute, eta horrek jabearen etekina gutxitzen du (ez dezagun ahaztu oiloak irabaziak lortzeko baliabidetzat hartzen direla).

Orduan, oiloen talde osoa beste saldo gazteago batekin ordezkutzen dute; lehenengoak hil egiten dituzte, eta haien gorputzekin beste animalientzako pentsua edo zopa-pastillak egiten dituzte.

Oilo-saldo gaztea ekarri duen enpresak oiloen ugalketan eta arrautzak inkubatzen jarduten du, txitak oilo errule bihurtu arte. Jende gutxi galdetzen du, baina, zer gertatzen den oilo arrekin, ez baitute balio arrautzen industriarako. Oilarrek ez dutenez jartzen arrautzarik, jaiotze berritan emeengandik banatu eta makina birrintzaile batean hiltzen dituzte. Oilo emeak, berriz, arrautzak erruteko gai diren arte haziko dituzte. Gero, bateria-kaiola edo haztegi estentsibo batera bidaliko dituzte, harik eta haien produktibitatea jaitasi eta hiltzen dituzten arte.

## ***Esnekien kontsumoa***

Txita arrekin gertatzen den bezala, txekorrak jaiotze eta denbora gutxira hiltzen dituzte, egun edo aste batzuetara. Esnekien industriak ez ditu txekorrak bizirik edukiko; izan ere, hazterakoan ez dute esnerik emango, eta ez liokete irabazirik sortuko enpresari. Garai batean, arren bat mantentzen zen, hazitarako, baina gaur egun intseminazioa guztiz artifiziala da, eta semen laginak enpresa espezializatuetatik etortzen dira; sarituenak AEBetan eta Kanadan daude.

Ekoizpena jaisten duten oiloei gertatzen zaien bezala, produkzioa jaisten duten behiak ere hiltegiara eramaten dituzte. Hiltzen dituztenean, animalia-pentsu edo zopa-pastilla bihurtuko dute gorpua, gutxi-gorabehera jaiotze eta sei urtera.

Esnekien industriaren alderdi inportante bat, sarri ahazten dena, zera da: behiak ugaztunak dira, eta horrek esan nahi du haien kumeek bularra hartzen dutela. Hala ere, esnekien industrian txekorrak eta amak banandu egiten dituzte, txekorrek kontsumitzen duten esnea guztiz murrizte aldera. Horrek sekulako estresa eragiten die behiari nahiz txekorrari; banatzen dituztenean, bata besteari deika egoten dira hainbat egun.

Behiek, beste edozein ugaztunek bezala, esnea ekoizten dute umea jaiotze baino egun batzuk lehenago hasi eta titia kendu arte; industriaren kasuan, titi-kentzea ez da inoiz gertatzen, txekorra jaiotze bezain laster kentzen baitiote amari. Ondo-



rioz, pixkanaka-pixkanaka haien produkzioa jaitsi egiten da.

Ekoizpena eskasa denean, behiaren jabeak berriro intseminatzen du behia, ernari utzi eta berriz erdi dadin; hala, zikloa berriro errepikatuko da. Behiak esnea produzituko du, txekorra kenduko diote, esnea lapurtuko diote ugatzetik eta berriro intseminatuko dute.

Gizakiek edaten duten esnea behiek txekorrentzat egiten dute. Behi eta txekor horiek hiltegiari bukatuko dute; gainera, jabeak animalia horiek jabetzat hartuko ditu. Hori guztia kontuan izanik, argi dago beganoek zergatik egiten dieten uko esnekiei.

## ***Begano izateko zailtasunak***

Txikitatik irakatsi digute pentsatzen animaliak gizakion eskura daudela. Gizakiak gara, eta gure espeziea gainerako espezieen gainetik dago. Inork ez digu azaldu zergatik gauden beste espezieen gainetik, eta jende gutxi egiten du galdera hori. Erantzun asko eman dakizkioke, baina denek falta dute oinarri logikoa, eta erraz gezurta daitezke. “Guk arrazoitzen dakigu”, diote batzuek. Etologo gehienek esaten dute animalia askok ere arrazoitzeko gaitasuna dutela, eta erremintak erabiltzen dituztela. Horrez gain, gizaki batzuek ez dute horretarako ahalmenik, ezta hizkuntza erabiltzeko ere, adibidez nerbio-sistema larriki endekatua izateagatik; hala ere, ez ditugu gure azpikotzat jotzen. Beganismoak argudiatzen du norbanako baten gaitasun intelektualek ez diotela goragoko mailarik ematen, eta eskubideak interesekin lotura daudela, ez adimenarekin.

Gizakiak beste espezieetako animalien gainetik jartzeko arrazoia guztiz arbitrarioa da, eta ez dauka inolako arrazoi logikorik; uste horren funtsa arrazismoaren funtsaren edo sexismoarenaren parekoa da.

Beganismoaren arazoak ez dauka zerikusirik sukaldean ikastearekin edo lagunekin afaltzera joatearekin, eta are gutxiago dieta osasuntsu bati jarraitzearekin. Beganismoaren zailtasuna honetan datza: etxean, eskolan zein komunikabideetan jaio ginenetik hezurretaraino sartu dizkiguten ideiak zalantzan jartzean eta aldatzean. Kontzeptu espezista horiek ezabatzeke norberaren prozesua luzea eta zaila izaten da askorentzat.

Hala ere, errazagoa egiten zaigu aurrera goazen heinean. Haragi-xerra faltan sumatzeari uzten diozu, jada ez baitzaizu plater goxo bat iruditzen, baizik eta hilotz bat, bizitzeko, amaren esnea hartzeko eta haren ondoan hazteko interesa zuen norbanako baten gorpua.

Sentimenduak dituen animalia baten gorpua, zeinaren bizitzeko eskubidea eta produktu ez izateko eskubidea urratu egin baitira.

## *Presioaren arazoa*

Ulertzekoa da animaliek pairatzen dituzten injustiziez ohartzen direnek injustizia horiek ezabatu nahi izatea. Beganismoa bizi-estilotzat hartzen dute, eta berdintasun-printzipioa jarrera politikotzat, baina ez hori bakarrik, beste batzuek ere hala egin dezaten saiatzen baitira. Kontua da guztiak ez daudela hein berean prest animalien eskubideak onartzeko, eta horrek presioa sor liezaieke batzuei.

Egia da gehienetan presio hori ez dela existitzen, eta beganoa ez denak era subjektiboan antzematen duela. Sentsazio hori azaleratzen da elkarrizketa batean non, inork beganismoari trabak jarri ostean, begano batek erantzun, argudiatu eta bere ideiak arrazoiz azaltzen dizkion.

Egiazkoa edo gezurrezkoa izan, beganismoaz hitz egitean oso garrantzitsua da beste pertsona presiopean ez sentitzea.

Hori egiteak bi ondorio izan litzake. Batetik, pertsona horrek beganismoaz ezer jakin nahi ez izatea gehiago. Bestetik, begano bihurtzea presioagatik (egiazkoa zein gezurrezkoa) eta ez benetan erabaki duelako. Horren ondorioz, presioa sentitzeari uztean, berriz ekingo lieke animaliei sufrimendua eragitean oinarritutako bizi-ohiturei.

Gure bizitzan zehar hartzen ditugun erabakiak guztiz kontzienteki hartu behar ditugu, tinko eta ziur, eta ez kanpoko indar batek behartzen gaituelako, baizik eta ulertzen dugulako erabakirik justuena dela, hartu nahi eta behar dugun erabakia.





**NOR-**

EUSKAL HERRIA  
**ANTIESPEZISTA**